

## HITZ BITAN

## EGITARAUA

## FUTBOLA

## Espainiako Lehen Maila:

Athletic- Malaga	1-3
Vila-real- Osasuna	2-0
Real Madril- Alaves	5-0
Zaragoza- Reala	1-1
Racing- Valentzia	1-1
Deportivo- Valladolid	1-2
Las Palmas- Celta	0-1
Bartzelona-Oviedo	0-1
Numancia- Espanyol	2-1
Mallorca-Rayo Vallecano	4-0

## Sailekpena:

■ 1. Real Madril	76 p.
■ 2. Deportivo	67 p.
■ 3. Mallorca	65 p.
■ 4. Valentzia	63 p.
◆ 5. Bartzelona	59 p.
◆ 6. Celta	55 p.
7. Vila-real	54 p.
8. Malaga	53 p.
9. Alaves	49 p.
10. Espanyol	47 p.
11. Las Palmas	43 p.
12. Athletic	43 p.
13. Zaragoza	41 p.
14. Valladolid	41 p.
15. Oviedo	40 p.
16. Reala	40 p.
17. Rayo Vallecano	40 p.
▼ 18. Numancia	36 p.
▼ 19. Racing	36 p.
▼ 20. Osasuna	36 p.

## Txapelketa Liga

## UEFA Kopa

## Bigarren maila

## Espainiako Bigarren A Maila:

Elx- Eibar	2-0
------------	-----

Sailekpena:

1. Sevilla	73 p.
14. Eibar	50 p.

## SASKIBALOA

## Espainiako ACB Liga:

Final-laurdenak: Estudiantes- Tau	82-97
Pamesa-Unicaja	69-79

Finalerdietako partidua hauek izango dira:

Real Madril- Tau
Bartzelona- Unicaja

## ESKUBALOA

## Espainiako Kopa:

Finala: Portland - Ciudad Real 22-20

## ERRUGBIA

## Frantziako Elite Maila:

Final-laurdenak:

Stade Francais- Biarritz 19-35

Finalerdietako partidua honako hauek izango dira: Biarritz- Montferrand

Tolosa- Castres

## Espainiako Erregina Kopa:

Finala: Getxo Artea- L'Hospitalet 13-12

Getxo Artea txapelketa, estreinako aldia.

## ARETO FUTBOLA

Jaitzierako play off-a:

Foticos Zaragoza- MRA Xota 2-4

MRA Xotak Ohorezko Mailari eutsi dio.

## AIZKORA

## Buruz buruko IV. Urrezko Aizkora.

## Bigarren faseko 3. jardunaldia:

1. Mindegia	29.46
2. Peñagarikano	Ez zuen amaitu.

Mindegia finalera sailkatu zen.

## HARRI-JASOTZEA

## Harri Txikietako Euskal Herriko

## Txapelketa.

1. Izeta II	12.287,5 kilo.
2. Izeta III	9.675 kilo
3. Zelailuze	8.112,5 kilo.

Jon Gonzalo | DONOSTIA

Iban Mayo 23 urteko txirrindulari bizkaitarrak ezohiko astelehena izan zuen atzokoa. Ohiko lasaitasuna alde batera utzi, eta sakelako telefonoan jasotako dei andanari erantzuten igaro baitzuen egun osoa. Midi Libre irabazi ondorengo biharamunaren ajeak dira horiek, baina Mayo gustura egin zituen atzo egin beharreko guztiak. Izan ere, Igorreko txirrindularia pozez gainezka zegoen: «Oso pozik nago, baina oraindik ezin dut sinistu egin dudana. Garai honetaz ondo jabetzeko denbora beharko dudala uste dut».

Igandea arte txirrindulari ezezaguna zena Euskal Herriko txirrindularitzaren azken harribitxiztat joko dute askok eta askok gaurtik aurrera. Bizkaitarra, ordea, hankak lurrean dituen txirrindularia da, eta zuhur-zuhur mintzatzen da bere etorkizunari buruz: «Tourea parte hartuko dudana? Egia esateko, denboraldi honetako nire plan-gintza Midi Libre probarekin batera amaitzen zen, eta hemendik aurrera ez dakit zer egingo dudana». Etorkizunari zuhurtziarekin begiratzearena bere orain arteko txirrindulari ibiliak erakutsi dio Mayori. Izan ere, kirol honen alde iluna behin baino gehiagotan nozitu du txirrindulari bizkaitarrak.

Bere kirol ibilbideko hasierako urteetan, ordea, dena ondo atera zitzaion Mayori. Gazte

# Arantzaz jositako ibilbidea

**TXIRRINDULARITZA.** Iban Mayok Midi Libre irabazi du, bere kirol ibilbideko estreinako garaipena



ANDRE KOSTERS / EPA

Iban Mayo, Midi Libreko irabazlearen maillot horia soinean duela.

mailako bi urteetan 30 garaipen baino gehiago lortu zituen, eta 1995eko jubenilen Mundialean laugarren postuan sailkatu zen. Garaipen sorta horrek afiziona-

tu mailako Banesto taldearen atentzioa deitu zuen berehala, baina kategoria aldaketa oso gogorra izan zen Mayorentzat. Afizionatueta estreinako ur-

tean oso pattal ibili zen, eta inork ez zuen ulertzen zergatik, denboraldi amaieran bere gaitzen jatorria anemia zela esan zioten arte. Afizionatueta bigarren urtean Mayoren egoerak okerrera egin zuen. Denboraldia hasi eta berehala bi hankak eta besoa hautsi zituen istripu batean, eta txirrindularitza uzteko zorian egon zen.

Une horietan inork ez zuen txakur txirikik ematen Iban Mayorengatik. Sabino Angoitiak, ordea, Baque talderako fitxatzea erabaki zuen. Lehenengo urtean ez zuen gauza handirik lortu, baina Angoitiak ez zuen berarenganako konfiantza galdu, eta bigarren urtean Angoiti zuzen zebilela argi eta garbi gelditu zen. Izan ere, Iban Mayo 13 garaipen eskuratu zituen; besteak beste, Alacanteko Itzulia, Aragoiko Itzulia, Zamorako Itzulia eta oraindik txirrindularitza zaleek gogoan duten Lesakan amaitu zen Bidasoako Itzuliko etapa.

Alabaina, garaipenez jositako palmaren horrek ez zizkion berehala ireki profesionalerako ateak. Inork ez zuen bere aldean nahi, eta Mayo ez zuen ulertzen zergatik. Azkenean, ordea, Euskaltel-Euskadik fitxatu zuen, 1999. urtean. Iaz, estreinako urtea izan zuen profesionaletan, eta aurten Midi Libre irabazi du. Nolanahi ere, arantzaz jositako bidea izan da Iban Mayorena, eta horiek guztiak gaintzeko gai dela erakutsi du. Aurrerantzean ere horrela izan dadila.

**ARRAUNKETA.** Gazte mailako txapela Orioko arraunlariek eskuratu dute



EGUNKARIA

## Bermeok irabazi du Euskadiko Trainerilla Txapelketa

Bermeok Euskadiko Trainerilla Txapelketa eskuratu zuen igandean, Mundakako uretan. Bizkaitarrak hamalau minututik jaitsi ziren bakarrak izan ziren, eta erraz nagusitu ziren. Garaipena lortu zuten arraunlariak honako hauek izan ziren: Egoitz

Gallo, Jon Beitia. Gaizka eta Gorka Olazar, Iker Zabala, Joseba Beotegi eta Anartz Villanueva. Euskal Federazioko saria Isuntzak eskuratu zuen, eta gazte mailan, berriz, Orioko ontzia izan zen nagusi.

## HITZ ETA PITZ

## IMANOL ARREGI

(MRA Xotako atezaina)

«Mailari eustea lortu dugu, baina inork ez dezala ahaztu oso denboraldi txarra egin dugula»

## LUIS FIGO

(Real Madrilko jokalaria)

«Cibelesen gainean Liga txapelketa ospatzea munduko erregea izatea bezalakoa da»

## DUSKO IVANOVIC

(Tau Baskoniako entrenatzailea)

«Datorren urteko Euroligarako sailkatzea lortu dugu jada, baina gure helburua Liga irabaztea da»